



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—;	IX Urtea	1927'ko Azaroa	107 Zenbakia	!—
----	----------	----------------	--------------	----

Elizaren aginduak



Confiteberis vivens, vivus et sanus confiteberis
(Eccli. XVII, 27)

Aitortu bizirik, bizi ta osasunarekin aitor zaitez.

LIZAREN lendabiziko agindua, Jaungoikoaren Iru-
gaena adieraztean azaldu genuen, eta orain biga-
fenetik asiko gera.

Elizaren bigafen agindua da: *urtean bein gu-
txienez aitortzea* (konfesatzea) *eta ortaz landa-
ra iltzeko ariskuan ba-geunde edo Jauna artu
bear ba-giñu ta pekatu aundian egon.*

Agindu onek eta ufengoak edo Elizaren iruga-
fenak geienean garai berdiñetan beartzen gaitu ta
argatik bietaz batean itzegingo degu.

Agindu auek Lateran'go Eliz-batzafe nagusiak emanak dira. Ona bere
itzak:

«Gizon-emakumezko siñistun guziak, ezagueraren adiñera ezkeroz,
bear dizkiote aitortu, bakanka, osotara, beren pekatu guziak beren apezari,
urtean bein gutxienaz eta alegiña egin emandako ordaña betetzen; baita ere
Gure Jauna artu Pazko aldian bedere, beren apaizaren esan onaz, zerbait
bidezko gauzargatik agindu au gero go betetzeko baimena ezpa-du».

«Bakafen batek ezpa-lu egingo, ukatu bekio bizitzan elizako safera ta eriotz-ondorean ukatu bekio elizako ilobia».

«Maiz jakitera eman bedi elizetan agiri osasungafi au, inork ere eztezan ez-jakiñaren aitzekia eman».

Trento'ko Eliz-Batzafe Nagusiak XIV-gaŕen Bilerako 8-gaŕen legean *anatema* edo gaitzespena ematen du, agindu ofek eztuela beartzen esateko ausardia luketenan kontra.

Agindu ori beti tente gelditzen da, ba.

Baño agindu ortan Elizaren irugaŕena ere sartzen da dakuszutenez. Pazko aldian bedere gure Jauna artzea agintzen du-ta; au da befiz Elizaren irugaŕen agindua.

Elizaren bigaŕen eta irugaŕen aginduak nor beartzen dute?

«Gizon-emakumezko sñiestun guziak ezagueraren adiñera ezkeroz» dio Laterango Batzafeak. Ezagueran sartzen dan adiña ordea, geienentzat zazpi urtetako adiña da.

Ezaguera ba-duela aur batek, esan dezakegu, inori gezufa sartzen dio-la dakila, gezufa sartzeko ainbat dakinean. Adin au auferago edo atzerago dator batzuetan izatez, bestetan azieraz, eta erakusten zaienaz edo beren bizi-bideaz. Aur askok bederatzi eta amar urtetan ere ez dute ezaguerarik asko, pekatu lafi bat egiteko; baño beste askok zazpi urte baño ere len.

Adin ortan aufai aitortzeko bear dana erakustera bearturik daude gurasoak, pekatu aundiaren azpian.

Eta adin ortara ezkeroz pekatu lafirik duen edozein, bearturik dago urtean bein gutxienez aitortzera; berez ez ordea, pekatu lafirik ez duena; baño onentzat ere obe da aitortzea, bai pekatu uste baño aundiagoen bat izan lezakelako, baita beste kristauei efaz aldeko bide txafera ez eragiteko.


Jauna noiz artu bear duten aŕak.

Oraindik Sakramentu onen befirik eta Gure Jaunaren gogorik, beren adin txikiaz, ez dutenai etzaikiekie eman. Iltzeko zorian daudenean, baldin ba dakite Jesukristoren gorputza beste janarietatik bereizten eta gogoz Ari agur egiten (adoratzen), eman egin bear zaie. Gañerakoan befiz, alegia, kristau lkasbidearen edo dotriñaren ezaguera geiago eskatu bear zaie; au da, zeruratzeko beaŕezko egiten diran egiak jakitea ta beren adiñari dago-kion eran Jauna ongi artzeko bear dira paratu.

Aufak Jauna artzeko paraturik dauden edo ez, beren aitorpena (konfessioa) entzuten duen Apaizak, aŕen gurasoak edo guraso ordekoak ezagutu bear dute. Baño aŕen Apaiz-aitak (Parrokoak) bear du ardura iduki, eza-gueran sartu baño len edo ongi paratu gabe, aŕak ez ditezen Jauna artzera urbildu. Au guzia Elizak bere Lege befietan agindua besterik ezta. (Can. 834).

Nori aitortu bear gaizkion, eta Pazkozkoa non egin.

Lateran'go Batzafeak eskatzen zuan bakoitza bere Apaizari, au da, Aita Santuari, nor beraren Gotzai (Obispoari), edo Apaiz-aitari (Pafokoari) aitortzea; baño Ligorio santuak *aldeorokoa* deitzen duen oituraz, elizak ontzat emandako edozein Apaizari aitortzea berdin da.



**Irñan, Agoñaren 25'ean agertu zan Prantzisko Asis'tar
santuaren oroitaña.**

(Foto Fr. F. de P.)

Eliz-lege Befiak esaten digu Pazkozkoa kristau bakoitzak bere Pafo-
kian egitera eragiteko kristau guziei eta beste nonbait egiten dutenak, Apaiz-
aitari bete dutelako agiria erakusteko.

Pazko aldia noiztik noizera da?

Eliza guzira Pazko aldia Eramu egunean asten da ta Pazko ondoreko
igandean bukatzen da. Gotzaiak luzatu dezakete nai izanezkeroz Garizuma'-
ko laugarren igandetik Irutasun santuaren eguneraño. «Españan 1924'etik
Alki Santuak (Aita Santuak) amar urteko berexkuntza bezala, jafi zuen Pa-
fokiakin betetzeko alditzat, Garizumaren lendabiziko egunetik asi-ta Iruta-
sun guziz santurañokoa» (A. Hillaire—A. Piaggio).

Arte ortan betetzen ez duenak pekatu lafia egiten du, eta gero ere
lenbaitlen aitortu ta Jauna artzera beartua gelditzen da, «bere Apaizaren
esan onaz (konsejuz), zerbait bidezko gauzogatik, agindu au gerogo bete-
tzeko baimena ezpa-du» (Lateran'go Eliz-Batzar.)

Naiz urteko aitorpena egitean, Pazko aldia betetzean edo ta ustez Az-
ken aldiz Jauna artzean, gauza oiek pekatuan egiñak ez ditu aginduok be-
tetzen; eta bearturik dago ongi aitorturik, befiro betetzera.

Noiz geiagi bear degu aitortu eta Jauna artu?

Pekatu aundia egin duenak, Jauna artu nai duen edozein garaietan eta
gañera eriotz-orduan ere, edo eriotzaren afisku, edozein bidez datorkiona
denean, bear du aitortu, eta Jauna artu ere bai. Pekatu aundiaren azpian
beartzen gaitu onek. Baño ori da gaitz artatik aterako geran itxurarik ez
dagonean. Gaitza lafia denean, zilegi da beti Elizakoak artzea, ta ezta sen-
dalariak esan beafik ortarako. Gañera bearturik gaude alako gaitzaldian,
ez geiegi luzatzea artu gabe.

Egun berean Jauna artu ba-genu ere, iltzeko zorian jafiz geroz, befiz
artzea nai du Elizak.

Gaxo edo eriak zaintzen daudenak erne egon bitez—dio Elizak—ez be-
randuegiko Elizakoak artzea uzteko, edo ezagura osoan daudela afazteko.
(Can. 864-863).

Gogoan iduki, kristauak, Elizak urtean bein gutxienez aitortu ta Jauna
artzeko agintzean, Trento'ko batzafeak erakutsi zuen bezala Meza entzuten
duten kristauak, Apaizaren ondotik Jauna artzea nai duela ta X-gařen Pio'k
dionez kristauak Jauna artzea nai duela.

Intza'r Damaso An.



“ERIARENTZAKO LITURGIA”

Urteko

6 liburutxo politak baño politagoak

Bakoitzak 16

ofialde izango ditu. Azal polit batez estaliak.

Batzuetan kantak ere bai.

SARIA - Merke-Merke

ZERUKO ARGIAREN ARPIDEDUNENZAT

Urtean Pezeta bat.

Apaiz Jaunentzat

Liburu oyetatik ugari beren Elizetan zabaldu ditzaten

bakoitza 5 zentimoz azalik gabe.

Irakuri ondoreko eskutitza

«Euskal-eriko Apaiz Jaunentzat ta baita ere guzientzat» eta or
ikusiko dezute liburutxo oyek zer izango diran.


Eskaerak lenbailen egin

Zuzentza: «Zeruko Argia»

PP. Capuchinos

PAMPLONA

Euskal-eriko Apaiz Jaunentzat ta baita ere guzientzat



Doñonsoro'tar Gabriel Jauna

E.....

NERE Apaiz Jaun agurgariya: Zein begi onez begiratu detañ zure eskutitz mami-sua, ez da erex esatea. Gu ere aspaldi asmo ortan gaude.

Ez da aritzekoa gure Elizetan gertatzen dana. Zuk ere oso ederki diyo-zu.

Gaur beziñ elizkizun ederak ez dira beñere egin, gaur Apaiz Jaunak egiten dezuten lana zuen elizetan ez da esatekoa, ta ala ere zala da jendia elizetara eramatea.

Baño, ez critu, zabartu egin gera gu ere, ez diogu eriarri erakusten, jakin bear lukean «Liturgia», ez dakite

zer dan Meza Santua, zer esan nai duten Apaiz Jaunak Elizan egiten dituan otoitz ta elizkizunak; askotan, batez ere gizonak, baño baita ere emakumeak aboa zabalik egoten dira Elizan, inork erakutsi ez dielako, Eliza Ama Santuak egiten dituan elizkizunak.

Naiko lan egin zuan ba Pio X^{ak} gai ortaz, askotan agertu zigun bere asmoa ta bere pozik aundiyena auxe izango zala: gizonak ta emakumeak elizetan ikustea, baño guziok baturik kantatuaz, guziok baturik otoitz egiñaz.

Ordun bai Eliza maitagarria izango litzakela gure erientzat: iluntasunak argitu, naigabeak poztu, nekeak arindu, negarrik legortu, eta gaitzak sendatu egiten ditu Elizak bere otoitzaz, bere itzaz ta bere elizkizunaz.

Ta bai aldakizu zer erabaki degun uts aundi ori zuzentzeko?

Oraindaño urtero «Zeruko Argia'k» egiten zituan «Itzaldi txorta» arien ordeaz, baita ere urtero 6 «Liturgia-zatitxo» azaltzeko asmoa artu degu.

Liburu txiki ta polit batzuek azalduko ditugu, 16 orialdekoak, merke-merkeak.

Beroietan poliki-poliki Elizan egiten diran gauza guztiak agertu-

ko ditugu: Meza Santuak zer esan nai duan: Meza santua ondo entzuteko bidea; Abendua, Garizuma zer diran eta garai oietan egiten diran elizkizunak jaraitzeko bidea; Sakramentuak ondo ondo artzeko eta zer diran ikasteko ikasbideak eta beste gauza asko ta ugari.

Gai bakoitzaz zatitxo edo liburutxo bat egiteko asmoa degu, ta urtero 6 liburutxo azalduko ditugu.

¿Ta saria? Oso merke, liburutxo oyeke laxter bazter guzietara bareatu ta zabaldu ditezten.

Urtero 6 liburutxo oyeke artzeko, «Zeruko Argia'ren» arpidedunak naikoa izango dute Pezeta bat ordaintzea ta azal polit bates estaliak artuko dituzte.

Apaiz Jaunai gañera, beren Elizetan zabaltzeko, azalik gabe, askoz merkeago emango zaye, bakoitza 5 zentimoz.

Ikusten dezu bada, gauza egokia egitera dijoala Zeruko Argia, Apaiz Jaunai laguntzeko, ta kristauen fedea gero ta geyago piztutzeko.

Bakizu nere adixkide oñek, Jesukristok diyona: Zeruko Ereinuan, ez dira Jauna, Jauna, dioten guziak sartuko; lan egin zazu bada, zabaldu gure asmo ori, ta laxter eskatu zure Eliza ortan zabaldu bear dituzun zenbakiak.

Agindu beti zure adiskide

Donosti'ar Gabriel A'ri.

BAI ERI GAXOA...!

Castilla-aldeetik Euskal-Eñira
natofen guzian,
naigabe ilun bat sortzen zait beti
biotzan erdian.
Ai! gure Euskeia t'oitura zafak
igesi dijoaz...
Bildur naiz laister ez ote geran
aztuko Jainkoaz.
Geok, Euskera t'oitura zafok
uxatzen ai-gera,
txori lapurak garitik uxa
oi-diran antzera.
Baña ¿zergatik? Zergatik ote,
ene Jaungoikoa?
iNoletan ote-nai degu galdu
gure izen zintzoa?
Euskal-Eñia Euskerik gabe...
bai-Eñi gaxoa...!
Masti ofitsu edefa baña...
matsik gabekoa,
Loretegian il eta agortu
dan itufitxoa...

Jauregi'tar L.





Arats-otoitza

*****◆◆◆*****

Geldi-geldi

Kristo e - gun ar - gi -

tsu - - a Gaua on-datzen de-zu - na Ar-gi - a - ren I - ra -

PP

gar - le Goiko Ai - ta - - - ren dir-di ra - - - Goi-ko Ai-

ta - ren dir-di - - - ra.

Arats-otoitza

II Gure etsai gaiztoagandik
Zaindu gaitzatzu gau ontan,
Satan'en beldurik gabe
Lo egin dezagun Zugan.


IV Betor zure Aingerua
Zure gauzok gordetzera;
Betor gure Zaintzalea
Gu Satan'gandik zaintzera.

III Naiz begiak loak artu
Bego biotza esnarik,
Jauna, eskua iguzu
Ez dakigun deus okefik.

V Orain bagoaz lotara
Jauna, zure izenean;
Jainko Irubata Zuri
Ospea menden mendetan.

URTSUYA





Chengyuen (Kansu), Uztailaren 20, 1927.

Nere lagun eta anaikide on Damas A.



UK Otsailaren 28-an egindakoa, loreilaren 15-an artu nuan. Eskafik asko. Ez dakizu nolako atsegi-ña ematen digun ortik datorkigun edozein gauzak.

Zure idazkia ez daukat orain nere afean, Ander Aitari beñiro bialdu nion-eta; baña oroitzen naiz oso atsegiñezkoa izan zitzaidala, biotzetikakoa ta benetakoa irudituz zitzaidalako.

ZERUKO ARGIAK dituan auferapenaz, eta gu-re idazkiakatik artzen dezuten laguntzaz ere asko poztutzen naiz. Nik banekien, gu mixiotara etortzeagatik, ez zendutela kalterik izango. Jaungoikoak ezin dezake nai izan, gu mixiotara etortzeagatik, iñork kalte izatea.

Ni orain emen paketsu xamar nago. Orain ez dago katekumenorik, ez dago mixio-etxean ikaslerik ere. Orain ari naiz txino izkuntza ikasten gogotik. «Moral» eta «Derecho» beti asko ikasi beaia daukagu, (emengo ezkontzakin lafi nabil), eta idazkiak egin dizkidaten askoi erantzun bear diet.

Txinafak eguzkiaren arabera bizi dira. Udan oso goiz jaikitzen dira eta neguan oso berandu. Neroni ere nere moñoiak baño alpefago ezin ninteke izan, eta lauak ta laurden aldean jaiki beaia izaten det.

Emengo beroarekin, bazkalondoan etxetik ezin ninteke atera, baño gosalongoan eta apalongoan, moñoiak zaldiak nola zaitzen dituzten ikusten ibiltzen naiz. Jolasteko ere ba-ditut iru lagun: mofoi baten bi seme eta txakur txiki bat.

Mofoiaren bi seme oyetatik bat iru urtekoa da; besteak oraindikan ez ditu bi urte. Ni ufutitik ikusten nautenean, berealaxe deika asten zaizkit: «*xen-fu le, xen-fu le*: Aita, atoz, aita, atoz.»

Emengo umeak, neskak eta mutilak, amar edo amabi urte arte, denak onela dabiliz; «gutxienez» gefitik bera lafutsik. Bañan neskak, beren oñak azitzen ez uzteagatik, estu-estu lotzen dituzte, eta beti oñetakoakin ibiltzen dira. Gañera, txinar tartean emakumezkoaren oñak ikustea pekatu aundienetakoa da. Emen ba-ditut erositako neskatzu batzuk; oyeke berdin ibil-

tzen dira oñutsik; beste emakumezkorik ez det oraindikan beñere ikusi oñutsik. Gañerantzean, emakumezkoak, denak, aberatsak eta txiroak, lepotik oñetaraño ondo jantzita eta estalita ibiltzen dira, amar edo amabi urtetatik gora izan ezkeru.

Nere mixio-etxean nagon bitartean naiko ondo egoten naiz, baño bide-tan eta kristauen etxetan izaten da sufritu beafa.

Uda ontan, bein baño geyagotan, egun batean eta bero aundiarekin, irurogei, irurogei ta amar kilometro ibili bear izan ditut. Ez dakizu egun oyetan nolako egafiak pasatu nituan. Moñoyak, nun-nai ta nola-naiko ur otza afapatu ezkeru, edan egiten zuan, baño guk ezin. Bai omen dira gutxienez bi mixio-etxe, inguruan itufiak dituztenak, eta toki oyetako mixiolariak ur otza edaten omen dute. Bañan nik oraindikan Txinan ez det ikusi itufirik. Emengo ur guzia, bost, sei, zortzi metro lur azpian dauden putzuetatik atera bear izaten da.

Kristau batzuen etxetan janaria ez da izaten oso atsegingafia; bañan gauzarik nazkagafiena beren zikintasuna izaten da. «Higienistak» erakusten diguten guzia egia ba'litz, Txina'ra etofi bezin laster, gaitzez kutsatuta il bear lukete mixiolari guztiak.

Txinoen etxetan, kuxara oso gutxitan erabilzen da, bañan noizpait erabili beafa danean, lau ta sei lagun izan da ere, kuxara bat bakafa ipintzen digute; eta denok bata bestearen ondoren, kuxara ofekin jaten degu. Katiluak garbitu nai dituztenean, ikusiko ba-zendu, nolako zapi beltz zikiñakin igortzitzen dituzten!

Etxetik kanpora geranean, kristauen etxetan eta ostatuetan lo egin bear izatea ez da penitentzi txikia. Txina'fak, ez berentzako, ez bestentzako, ez daukate oerik edo oatzerik, eta beren etxetan «kang» deitzen diran tokietan lo egin bear izaten degu. Neguan ondo lo egiten da, bañan udan «kang» oyek zofiz eta arkakoxoz beteak egoten dira, eta an etzan bezin laster «*multi insurgunt adversum me*».

Lengo ilabeteko 20-ean, kristau baten etxean izan nintzan. Kristau ura zurgina da, ta bere ogibide ortarako tresnaz dena beteta zeukan etxetxoan, artu ninduan; gabez bere «kang» gañean neri lo egiñeraztea ez zan ausartu, an ugari ziran animalitxoak lo egiten utziko ez zidatelako, eta iru ola-kin, tresna tartean egin zidan oatzetxo dat. Ala ere maiz esnatu nintzan.


Gizon luzeak beste lanbide bat ene ba-degu Txina'n. Emengo «kang» guziak neretzako motxegiak dira. Tokia baldin ba-dago zearka etzaten naiz; eta tokirik ez baldin ba-dago anak kiskurtuta lo egin bear.

Yenchowfu'tik Kansu'rako bidean ere, Ander Aitak, zabalean toki gutxi zeukalako, izaten zituan bere kezka guztiak; ni befiz txinar guztien kontra asafe ibili nintzan, «kang» ofen motxak egiten dituztelako, ta luze ezin nintzalako etzan.

Lenago esan dizuten kristau zurgin aren etxean, nik lo egin nuan etxean bertan, nere ondoan lo egin zuten astoak, idiak eta beyak, eta ufengo goizean an bertan meza eman beaf izan nuan. Askotan meza eman bear izan degu asto ta idi tartean, ta orduan beti oroitu izan naiz, Jesukristo'k Belen'en jayo zanean lagun izan zituan idiaz eta astoaz.

Probintzial Aitari idatzi niola uste det, nola Loreñaren 23-an izan genduan luf-ikara.

Luf-ikara ofen sor-lekua Liangchow'n (Kansu) izan omen zan, eta andik inguruan zabaldu omen zan. Liangchow'n, mixio-etxean bakafik, amar



IRUÑAN: Prantzisko Santuaren Oroitaría agertzean.

lagun il zituan luf-ikarak. Amar lagun oyetako bat lekaime alemaniar bat izan zan.

Ander Aita eta ni oraintxe gelditu gera emen biok bakaf-bakafik. Gure lagun guztiak Tsinchow'ra bildu dira. Emengo ipafaldeko zati au Tsinchow'tik oso ufuti dago, eta oraingo guda nasketatik eta gudarien bildufez, emengo mixiolari guztiok ezin genezakean alde-egin; emen baten batek

gelditu bear zuan, emengo mixio-etxeak zaitzeko. AnderAita ta ni Tsinchow'tik etofí befiak geran ezkerro, Aita Nagusiak esan digu gu biok emen gelditzeko, gure lagunak Tsinchow'n diran bitartean.

Gure inguruan ez degu beste mixiolaririk; urbilena ditugunak Tsinchow'n daude, Iruña'tik Zaragoza'ra baño ufutiago noski. Emendik ara jua-teko aste bat baño geyago bear dute, eta etortzeko beste ainbeste. An iru edo lau astean egongo dirala uste det.

Benetan bakafik nago, baño oso pozik. Oso aspalditik eta askotan izaten nituan, orain naizen bezelako mixiolari izateko gogoak, baño ez nuan beñere uste izan Jainkoak gogo oyek beteko zizkidanik; ez nuan beñere uste izaten, noizpait indio tartean edo txino tartean, nik nere buruan iruditzen nuan bezela, bizi izango nintzanik, eta egitan, ala bizi naiz. Eztakit nola gertatu zan, nik onera etortzeko osasuna izatea, ta nagusiak ni onera bialdu nai izatea. «Lafeko» zure adiskidea (ta nerea ere bai), afituta egongo da noski, berak ni Iruña'n ikusi ninduen bezela ikusita, orain osasun onaz bizi naizela jakiteaz. Ta «Lafeko» aitatu dedan ezkerroz, ikusten dezu-nean, goraintziak berari nere aldetik.

Zuetaz, nere abefiaz, nere ezagun eta lagunaz, nere gurasoaz, anai-afebaz, askotan oroitzen naiz.

Emengo mixiolari batek Egubefitan ez du elizan jafi nai izaten Belen'go Jesus'en Jayotza (Nazimentua), beren abefian Egubefiak nolakoak diran geyegi oroitzen dalako, ta pena aundiegia artzen dualako.

Gañerantzean samintasun ori oso azalekoa da, ta ofegatik ez da ajolik. Are geyago, ofegatixe ere bafunean poza artzen da.

Onuzkero ba-dakizute noski, Kansu'ko ta inguruetako Probintzietako mixiolari protestanteai, beren konsulak deitu zietela, ta geyenak alde egin dutela, gudate ontan gertatu ditekenaren bildufez.

Guri befiz, Peking'go Aita Sainduaren Ordezkarriak (Delegado Apostólico), gure mixio-lekutik, ezin bestez baizik, ez alde-egiteko agintzen digu. Aita Sainduaren Ordezkarri onek mixiolariak egin zigun idazkia, orko egunkariak argiratu zuten noski. Bada-ezpadan, idazki onekin batean bialduko dizut.

Zure idazkian esaten zenigun, ea zer edo zer nai al degun; eskatzeko ta bialduko diguzula.

Aufena eskatzen dizut, bi «Zeruko» bialtzeko, bata Ander Aitari ta bes-tea neri; ta ez biak batean, baizik berezi. Ofela bata galduko ba'litz ere, bes-tea etofi liteke.

Bigafen, Donostiko **Euskal-Esnalea** pozik artuko nukela.

Irugafen, euskal-egutegi bat lenbailen bialtzeko, ia urte befitarako etortzen zaidan.

«Jaungoiko-Zale»-aren egutegia pozik artuko nuke, egutegi ortan euskaldun Deun guziak ipintzen ditualako. Emengo gure lagun mixiolariak gal-detzen bai-digute ea euskaldunen tartean Deunak bai al diran.

Laugafen, Aita Probintzialari esayozu, orko konbentuetan, baztefera botata egongo diran «*martirologio*» zafetako bat pozik artuko nukela. Emen ba-ditugu txinazko egutegiak. Egutegi oyetan Deun (santu) izen gu-

iak txinoz daude, ta askotan ezin degu ezagutu, zein Deunaren izena dan. Ilabete ontako seigarfen egunean izan degu Deun *Tang-kui-lin* bat, zazpigarfen egunean Deun *P'ang-te*, amabigarfenean, Deun *Ya-sung*: ogei ta irugarfenean Deun *Luo-mu-la*. Egun oyetako Deun izen guztiak «martirologio»-an ikusita, bear bada ezagutuko nuke, izen oek zein Deunen ize-nak diran.

Orain ufena Aita Probintzialari egin niona, Loreilaren 23-garfen egunean egin nion. Onuzkero elduko zitzayon noski.

Biar, nere mandoa artuta, Kingchow'ra juateko asmoa det, eta andik Pingliang'era, Ander Aitarekin batean egun batzuk igarotzera. Emendik Kingchow'ra, irurogei ta sei kilometro ba-dira; ta Kingchow'tik Pingliang'era, larogei baño geyago.

Pingliang'dik etortzerakoan, al ba-det, nerekin ekariaz bear det Ander Aita, nere tokia ta mixio-etxea ikusi dezan, oraindikan beñere emen ez da izan-da.

Goraintziak danoi, Nagusiai ta mendekoai, ta **Zeruko**'tarai.

Eta zu ez asafetu nere euskera mordoloegia dalako. Lu:nara edo maki-nara datofen bezelaxe dijoakizu. Asafetzen ba-zera, ez dizut geyago egingo.

Agur, eta otoitz gogotik ufena alkar zeruan ikusi dezagun.

Zure anaikide

P. Gregorius O. M. C.

Miss. Ap.

Chengyuen, Kansu, Uztailaren 24, igandea.

Josebe alarguna

Esadazu, Josebe,
nora zoaz ora?
—Illefira, Andoni,
senara ikustera.
Ara noa lasterka
negar egitera,
bera eziñez, luña
malkoz bustitzera.


Itzali zait argia...
ilundu eguna...
betiko gelditu naiz
bakar, alarguna...
joan zait bestaldera
eguzki kufuna...
Egiaz bai naizela
iluna, ifuna...

Ufatu zait biotza,
urtu bi begiak;
marguldu zaizkit ere
bi ezpain gofiak.
Ililik bezela dauzkat
beste soin-zatiak...
Auek bai dira, Andoni,
ikaragafiak!

Ustu nai nuke nonbait
bařengo beltzura;
eta idaztera noa
karta bat zerura:
«*Senar ori, emen nauk
ire Josebe ura:
eraman nazak laster
i agon lekura!*»

Saspi.

Ikasi...! Ikasi...!




I.—Joxe biuri ta Martin
Eskolara zijoazen;
Mutiko afotz oiekin
Joxe bidean gelditzen.



II.—Kanpotar gaizto oien poza...!
Asi dira ba jokutzen;
Joxek lauko bat izaki
Ta ori belaxe galtzen.



III.—Befiz ere asten dira,
Ta Joxek... galtzen befiro;
Iru «botoi» eman bear,
Dirurik ezuelako.




IV.—Botoi guziak galdurik,
Joxe nola asafetu dan!
Tranpa egin diola ta
Or dabiltz orain bofokan.



V.—Joxek besoa goratzen
Kanpotafa zanpatzeko;
Baña ofek bizi-bizij
Plaf! begia lertzen dio.



VI.—Botoi gabe, kafaxika
Joxe joan da etxera...
Ez lagun txarekin batu,
Ongi bizi nai badezu.



Txina'ko ume gaxoak

Mixiolari katolikoak beti pozik, maitasunez beterik artu, batayatu ta gorde dituzte, Txina'n gurasoak botatzen dituzten auf gaxoak. Mixiolarien maitasun au askoz edefagoa agertzen zaigu orain, Txina'ko jendeak beren artean dabilz-kiten bufukak ikusi ta gero

Joan dan urtean, 561.289 aurtxo bildu ta batayatu dituzte katolikoak, lena-goko urtean baño 69.355 geyago.

Katolikoan etxetan bizi diran aufak 713.929 dira.

Mejiko'ko katolikoak

Inglatefa'ko izpafingi edo periodiko bati esaten diote Mejiko'tik: Emengo katolikoengandik pakeak iges egin du ta ezta efaza noiz arte esatea. Calles ezta nekutzen ta aufera eraman nai ditu katolikoai al duan kalte guzia egiteko asmo gaiztoak. Apaiz askok emendikan atera bear izan dute ta beste efietara joan, al duten bezela bizitzera. Baño erbestean ere ez ditu pakean uzten Calles'ek. Ezin du eraman apaiz oyek emen utzi dituzten guraso ta anayengandik befiak jakitea, eskutitzak edo kartak egiaz. Onegalik bakafik, 200 ta geyago karizelan sartu dituzte.

Inglatefa'ko periodiku ofek, katolikoan adiskidea izan gabe ere, galdetzen du ea beste ériak ixilik egon bear ote duten au guzia ikusi ta.

Lourdes ta protestanteak

Protestanteak Londres'en izan duten batzar batean, ayetako batek esan zuan Lourdes'ko gertaera miragafiak sorginkeriak besterik etzirala. Protestantea ixildu zanean, eskatu zuan itz egiteko baimena, an zegoan jesuita batek. Ama Birjiñaren alde, katolikoak siñisten deguna, esan zuan ta azkenean, indar geyago egiteko, gogoratu zien nola izan diran 600 sendagile Lourdes'en joan dan urtean ta nola etófi diran, ango sendatze batzuek Jaungoikoak bakafik egin ditzakela esanaz.

Sendagile oyetatik bat an zegoan batzafean ta Aita Jesuitak galdetuzión ea egia ote zan berak ziona, ta erantzun zion berak bi sendatze ikusi zituala ta biyak miragafiak zirala, gizonak eziñ egin-alakoak. Sendagile ofek esandakoa entzun da gero, beste protestanteak etziran len bezelakoak atera, sorginkeritzat artuaz Lourdes'ko mirariak.

Mixiotako Erakusketa (exposición)

1929'g urtean Barcelona'n egingo da erakusketa aundia. An guzien begien aufean jakiko dira mundu guzian gizonak sortu ditun gauza afigafienak. Erakusketa ori antolatu nai dutenak asmo eder bat izan dute; erakusketa orian toki aundia eskefi dute mixiotako gauzak erakutsi ditezen; tokiaz gañera bear dan guzia emango omen du. Bertan erakutsiko dira batez ere España'ko mi-xiolariak zuzentzen dituzten mixiotako gauzak.